

EHUNEKOAK ETA INTERESAK**ARIKETA OSAGARRIAK.****1. EHUNEKOAK**

- 1) Traje batek 280€ balio du. Prezioa %12a igo badute, zenbat balioko du?

	PREZIOA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

- 2) Autonomia- erkidego bateko ur- erreserbak 350 hm³-koak ziren. %12-a txikitu badira, zenbatekoak dira, gaur egungo erreserbak?

	UR-ERRESERBAK	%
LEHEN		
GAUR EGUN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

- 3) Denda batean, 5€/kg-an saltzen zuten kafea. Orain, 4,75 €/kg-an saltzen dute. Kalkutatu ehuneko zer beherapen egin dute.

	KAFEAREN PREZIOA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

- 4) Herri batean 7000 biztanle zeuden baina, urtetan zehar, % 20 hirira joan dira. Zenbat biztanle *geratu dira* herrian?

	BIZTANLE KOPURUA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

- 5) Denda batean likidazioan daude eta dena % 40 beheratua dago. Zenbat kostatuko zait gauza bat lehen 4'20 € balio zuena?

	PREZIOA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

EHUNEKOAK ETA INTERESAK

- 6) Ikasturte honetan institutu batek aurreko urtean baino %8 ikasle *gutxiago* ditu. Aurreko ikasturtean 450 ikasle zituen. Zenbat ikasle daude guztira ikasturte honetan?

	IKASLE KOPURUA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \text{—————} =$$

- 7) Zine areto bat %75ean bete da proiektzio jakin baterako. Pelikula ikusten 465 lagun badaude, zein da aretoaren edukiera osoa?

	LAGUN KOPURUA	%
AFORO OSOA		
ARETOAN DAUDENAK		

$$X = \text{—————} =$$

- 8) Okindegi batean, eguneroko produkzio osoaren % 0'8 ogi birrindua fabrikatzeko gordetzen da. Gaur 12 kg ogi birrindua sortu da, zenbateko izan da ogiaren guztizko produkzioa?

	KG	%
OGIA		
OGI BIRRINDUA		

$$X = \text{—————} =$$

EHUNEKOAK ETA INTERESAK

- 9) 30 euro balio zituen jertsean Aneri 4,5 euroko deskontua egin diote. Ehuneko zenbateko deskontua egin diote?

	PREZIOA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

- 10) 126 € kostatu zuen bizikleta zahar bat saltzean, 26 € galdu ditut. Zer ehuneko galdu dut?

	PREZIOA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

- 11) Iaz pisu bat erosi genuen eta urte bat pasa ondoren % 20 gehiago balio du. Esaten badugu orain pisuak 120 000 € balio dituela, zenbat balio zuen pisuak prezioa igo baino lehenago.

	PREZIOA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

- 12) Alkandora baten prezioa, %10eko merkealdia egin eta gero, 22,5 euro da. Zein zen hasierako prezioa?

	PREZIOA	%
LEHEN		
ORAIN		

$$X = \underline{\hspace{2cm}} =$$

EHUNEKOAK ETA INTERESAK**INTERESAK**

- 1) Banku batek % 3 eskaintzen du dirua deposituan uzteagatik. 3000 € depositatzen badugu banku horretan, zenbat interes jasoko dugu 5 urte pasa ondoren? INTERES BAKUNA

$$K_{azkena} = K_o \cdot \left(1 + \frac{r}{100} \cdot t \right) = \quad \cdot \left(1 + \frac{\quad}{100} \cdot \quad \right)$$

- 2) Banku batean urteko % 4 eskaintzen dute dirua uzteagatik. 50 000 € uzten baditugu 3 urtetan zenbat ordainduko digute? INTERES KONPOSATUA

$$K_{azkena} = K_o \left(1 + \frac{r}{100} \right)^t = \quad \cdot \left(1 + \frac{\quad}{100} \right)$$

- 3) Alexandrak 35400 €-ko kapitala sartu du bankuan urteko %6ko interesan. Zer saldo izango du urtebete eta erdi barru? INTERES KONPOSATUA

$$K_{azkena} = K_o \left(1 + \frac{r}{100} \right)^t = \quad \cdot \left(1 + \frac{\quad}{100} \right)$$

- 4) VISA txartelarekin erosteagatik gutxi gora behera urteko % 24-ko interesa kobratzen digute. Erosten badugu txartelarekin 50 € balio duen gauza bat eta 7 hilabete ematen baditugu ordaintzen, zenbat kostatuko zaigu benetan gauza hori ordaintzen amaitzean?

$$K_{azkena} = K_o \left(1 + \frac{r}{100} \right)^t = \quad \cdot \left(1 + \frac{\quad}{100} \right)$$